

Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko irailaren 7an egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen

Selma Huxley Barkham Ikerketa beka ebazpen egitea

2017ko otsailaren 23ko Osoko Bilkuran Selma Huxley Berkham Ikerketa bekaren oinarriak eta deialdia onartu ziren eta deialdia 2017ko martxoak 24an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Epearen barruan hiru egitasmo aurkeztu ziren.

Ikusita osatugabeak zirela jakinarazpena bidali zitzaizen falta zitzaizen dokumentazioa eskatuz. Proposamenak osatu eta oinarrien 9. puntuan zedarritutakoari jarraiki epaimahaia hiru aldiz elkartu da egitasmoak aztertu eta baloratzeko oinarrietan jasotako irizpideekin bat.

Hona hemen aurkeztutako egitasmoak eta jasotako puntuazioa:

1. Emakume eta lana XX. mendean: Oñatiko emakumeen memoria kolektiboa genero ikuspegitik berreskuratzen
2. Oñatiko emakumiak errekadutan: XX. mendeko etnografia feminista
3. Kontatzen ez dena ez da existitzen: Oñati 1950-2017

Hautaketa epaimahaiak, ondorengo puntuaketa egin du oinarrietako irizpideetan oinarrituta:

	1.p	2.p	3.p
Proiektuaren planteamendua	20	27	10
Proiektuaren argitasuna eta bideragarritasuna	22	21	15
Oñatiko udalerraren isla	5	5	0
Curriculumak	20	14,5	20
Berdintasun eta feminismoan ibilibide eta prestakuntza	0	10	0
GUZTIRA	67	77,	45

Oinarrietako 9. puntuan jasotakoari jarraiki eta 39/2015 Legearen 82. artikulua araberan 10 eguneko entzunaldia eman zitzaizen interesdunei tramiterako agiriak aurkeztu ahal izateko.

Horretarako epea igarota, Epaimahaiak, aho batez, eginiko balorazioa aintzakotzat hartuta, dagokion esleipen proposamena egin du.

Gaia aztertu ondoren eta Berdintasunerako zein Ogasun Batzordeen irizpenak aldekoak direla kontuan hartuz, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hauek hartu ditu:

.- Esleipen Proposamena: "2. Oñatiko emakumiak errekadutan: XX. mendeko etnografia feminista" proiektuari ematea "I. Selma Huxley Barkham Ikerketa Beka". Irati Garai Aldecoa eta Jone Arrazola Maiztegi dira proiektuaren egileak, eta beka onartzen dutela idatziz adieraztean bekaren % 40ren ordainketa egitea, 4.800 euro.

.- Ordezko proposamena: "Emakume eta lana XX. mendean: Oñatiko emakumeen memoria kolektiboa genero ikuspegitik berreskuratzen".